

PROSTITUZIOARI BURUZ



Zerbait aipatu nahi nuke prostituzioari buruz, batez ere zenbait gaizki-ulertu ekiditeko, orain dela gutxi Frantzia aldean lehertutako “Touchez pas ma pute” ekimenaren haritik zenbait gauza aipatu baitira han eta hemen, eta horietako batzuk onartu behar dut gogor samarrak izan direla.

Eta, hasteko, zera esan nahi dut: munduko emagaldu guztiak desagertuko balira, aurrera ateratzeko beste lanbide bat aurkitu dutelako eta prostitutek eurek horrela erabaki dutelako, ez litzaidakeela bat ere axolako.

Adibidez, Donostian prostituzioan aritzen diren 150 emakume baldin badaude eta norbaitek (erakunde batek, elkarte batek...) jarduera hori bertan behera uzteko aukera eskainiko balie eta denek aukera onartuko balute (eta ez dut dudarik ia gehienek atsegin handiz utziko lioketela prostituzioan aritzeari), eta horren ondorioz, hurrengo egunean Donostia eta Donostia inguruak prostitutarik gabe “esnatuko balira” eta emakume horien ogibidea bat-batean (eta betiko) desagertuko balitz, pozik jasoko nuke albistea, pobreziak behartuta (ez jada mafiek behartuta, noski) prostituzioan aritzen ziren 150 emakume horiek bizitza berri bat hasteko aukera zeukatela jakinda, ordura arte euren borondatearen aurka aritutako jardueratik aske.

Esan dudan bezala, mafiek edo emakume-trafikoak behartutako prostituzioa higuinarrria eta laidogarrria da. Eta gainera, polizia ezberdinetako arduradunak euren karguetatik kendu edota poliziatik egotzi beharko lituzkete proxeneta-sare batek polizien sudurren aurrean emakume-trafikoan urte luzez jardun duela jakiten denean, zeren gauza bat da sare horietako bat gure herrian instalatzea eta hilabete batzuk (urtebete-edo) igaro arte poliziak horren berririk ez izatea, eta beste kontu bat da halako sare bat URTEETAN aritzea poliziak hauteman gabe eta deuseztatu gabe. Ez da sinesgarria; hori gertatzen denean, poliziaren profesionaltasunik eza jartzen da agerian, zeren, azken batean, sare horiek euren zerbitzuak publikoki eskaintzen dituzte, eta beraz, sare publikoak izanik, polizia on batek ez luke inoiz denbora luzeegi izan beharko horrelako sareak hauteman, deuseztatu eta sare mafioso horien atzean egoten diren gaizkileak kartzelara bidaltzeko. Salbuespen batzuk egon daitezke, esaterako, duela gutxi emakume txinatarrekin trafikatzan zuen sare mafioso baten berri agertu zen komunikabideetan, baina sare horrek bere zerbitzuak bakarrik eskaintzen zizkion txinatarren komunitateari; hortaz, komunitate nahiko itxia eta marjinala izanik, gure gizartean hizkuntzagatik eta kultur gorabeherengatik integratzea zaila duenez, batzuetan ezin asmatuzkoa da zer gertatzen den horren atzean, eta nahiko komunitate hurbilgaitza gertatzen da besteontzat, baita poliziarentzat ere. Baina kasu horiek salbuespenak dira. Oro har, Errumaniako mafiek, Europa Ekialdekoek edota Estatukoek beste *modu operandis* bat daukate, eta haien hautematea, jazartzea eta ezabatzea “borondate oneko

kontua” dela esango nuke, hau da, arazoaz gehiago kontzientziaztean eta gizarte matxista edota ez-solidario baten kanonak gainditzean datza kontua.

Nolanahi ere, beste kasua ere hor dago. Eta hori ere ez da onargarria. Hau da, ez da onargarria emakume bat edo gizon bat prostituzioan aritzea egoerak behartuta, alegia, ogia irabazteko beste baliabiderik ez duelako. Hala ere, irtenbidea ez da ez prostitutak ez euren bezeroak kartzelara eramatea.

Posible ote da gure herriko eta gure hirietako prostituta guztiei lanpostuak eskaintzea prostituzioa utz dezaten, benetan hori egin nahi badute? Nire ustez, prostituzioan benetan aritu nahi ez duten emakume guztiei lanpostuak eskaini beharko lizkiekete gure erakundeek, eta horren ostean, herri bat edo hiri bat prostitutarik gabe geratzen bada, ba gera dadila. Eta zer? Ba hobe, prostituzioan behartuta aritzen baziren, hobe beraientzat eta hobe denontzat.

Dena den, pentsa dezagun zenbait emakumek hauxe erantzuten dutela: “Ez, nik ez dut zorurik garbitzen ibili nahi hilean 800 euro irabazteko. Nahiago dut neure kasa prostituzioan jarraitzea eta nire bizitza-mailari eustea”; edo “Ez, nik nahiago dut prostituzioan jarraitzea, mundu marjinal horretan ondo moldatzen naizelako”.

Bueno, ba hori beste aukera bat da. Eta ez dut uste inork tartean sartu behar duenik. Aukera hori utopia bat dela? Bueno, hori eztabaidagarria izan daiteke. Zeren, kasu horretan, eta gure hirietako prostitutei lanpostuak eskaintzea utopiarik izango ez balitz, orduan ez litzateke beharrezkoa izango prostituzioa abolitzea, ezeztatzea edo debekatzea, berez desagertuko litzatekeelako.

Dena den, Estatu Batuetan –herrialde aberats bat aipatzeagatik– badaude emakume asko prostituzioan aritzen direnak (porno industriarekin lotuta, e.a.), eta, horietako asko ez dira prostituzioan aritzen egoerak behartuta, mafiak behartuta edo txirotasunak behartuta (batzuk bai –han ere badaude mafiak–, baina denak ez). Eta kasu horretan, zera baino ezin dugu aitortu eta onartu: pertsona bakoitzak bere etika, bere moralala eta askatasun osoa dituela –izan behar dituela– bere bizitzarekin zer egin nahi duen erabakitzeko. Eta kito. Ez dago gehiago esaterik.

Estatu Batuetan egindako erreportajeak ikusita dauzkat, zeinetan emakume polizia polit batek emagaldurena egiten zuen leku urrun eta diskretu batean, eta noski, handik pasatzen zen gizon bakoitzak autoa geldiarazten zuen. Beraz, eguneko diru-bilketa zinez polita zen (estatuko diru-kutxetarako). Baina ez hori bakarrik, emakume poliziak hoteletan eta leku pribatuetan ere egiten zuten emagaldurena, eta leku erabat pribatuak izan arren, gizonak berdin-berdin atxilotzen zituzten eta benetako hondamendia bilatzen zieten, eta niri, behintzat, hori aberrazio bat dela iruditzen zait, eta nire ustez, mota horretako debekuek hori da azkenean ekartzen digutena. Egia esan, horrelako gauzak ikusteak gauza asko berriz planteatzera eramane beharko gintuzke.

Ez dakit, batzuetan sententzia dut ez ote gabiltzan mutur batetik bestera, nora ezean edo...